

1.1. Herritarrei informazioa eta orientabidea ematea

Espediente kodea:HEIO

Zer da? Zertarako da?

- Herritarrei udalarekin eta, oro har, udalerriarekin zerikusia duen edozein gairi buruzko informazioa eta orientabidea ematea.
- Herritarrei udaletik kanpoko tramiteak egiteko orientabidea ematea.

Nork eska dezake?

Edozein pertsonak, bere izenean edo beste norbaiten legezko ordezkari gisa.


Aurkeztu beharreko agiriak

Agiri lagungarriak

-[eskaera orria](#), eskaera erregistratzea nahi bada

-[ordezkaritza idatzia](#) beste norbaiten ordezkari gisa eskaera erregistratzeko

Nola eskatzen da?

 **Aurrez aurre:** hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 – 14:00**.

Astearte eta ostegunetan **08:00-18:30**

Uztaila eta Abuztuan astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**

☎ **Telefonoa:** ezin da telefonoz eskatu.Dena den informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337000** telefonora deituz.

: **Internet:** udalaren www.hernani.eus web orriko egoitza elektronikoan

✉ **Posta arrunta:** ezin da postaz eskatu

Zenbat kostatzen da?

Doan

Prozeduraren epea

Aurreikusitako epea: Eskaera egiten den unean

Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura

Informazioa ematea eskura dauden tresnak baliatuz (Administrazio Prozeduren Eskuliburua, eskaera-orri normalizatuak, Espedienteen Kudeaketa Programa, Usoa, Erregistroak...)

Tramiteak egiteko eskaintzen diren bideen berri ematea. (Aurrez aurre, telematikoki, telefonoz, posta elektronikoz, posta arruntez eta faxez.

Informazio zehatza behar izanez gero, dagokion arloko teknikariekin harremanetan jartzeko modua adieraziko da.

Prozeduraren tramiteak

Kasu bakoitzean dagokiona

Oharrak

Beharrezkoa bada, langileak herritarri lagunduko dio inprimakiak betetzen edo Zerbitzu Telematikoen bidez tramitatzen.

Araudi aplikagarria

- *7/1985 Legea, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen (69.artikulua)*
- *11/2007 Legea, Herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoa (37.artikulua)*

